

# hazi

LEA-ARTIBAIKO EKONOMIA ALDIZKARIA

2010eko EKAINA

19. ZK. • 6.urtea

10-11



**Berrikuntza gunea:  
proiektuak identifikatu  
eta garatzeko bidea**

Kirola, bizitzeko eta  
lanerako

Altuena: turismoa  
baino gehiago, bizia  
ulertzeko era bat

Eika-ren ezagutza,  
merkatu berrietara



ARGITARATZAILEA:  
**Azaro Fundazioa**

LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**

EGOITZA: **Xemein Etorbidea 12,**  
**48270 MARKINA-XEMEIN**

TELEFONOA: **94 616 91 72**  
Faxa: **94 616 92 17**

E-POSTA: **azaro@leartik.com**  
**leartibai@leartibai.com**

TESTUAK: HITZA

ARGAZKIAK:  
GARBINE GARAGARTZA

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: **11 BARRI**

WEBGUNEAK:  
**www.azarofundazioa.com**  
**www.leartibai.com**

## AURKIBIDEA

Editoriala	<b>03</b>
Enpresak sortzen	<b>04 - 05</b>
Ikuspegia	<b>06 - 07</b>
Bertoko enpresak ezagutzen	<b>08 - 09</b>
Behatokia	<b>10 - 11</b>
Leihatila	<b>12</b>

**azaro**  
fundazioa

**Leartibai**  
Garapen Agentzia

# EDITORIALA

## Berritzeko giltzak

**B**erritu, berritu eta berritu, hori da azken aldiaren gure artean modan dagoen kontzeptua, baina horren inguruan ondorengo galderak sortzen zaizkigu: zer da berrikuntza? Nola berritu? Nork lagunduko digu berritzen? Galdera hauei guztiei erantzuten saiatuko gara zuen eskuetara heldu den Hazi-ren zenbaki honetan.

Berrikuntza kontzeptua deskribatzeko orduan, zenbat pertsona, beste horrenbeste iritzi jaso daitezke. Guk berrikuntza dibertsifikazioarekin lotuta ulertzen dugu, berrikuntza produktuetan, prozesuetan, teknologian, merkatuan, pertsonetan. Azken batean, helburua gure bezero ehuna zabaltzea da, produktu berriak eskainiz, prozesu berriak landuz, teknologia berriak garatuz, merkatu berrietara zuzenduz edo pertsonen kudeaketa eremuan eraginez.

Berritzeko jarraitu beharreko prozesua zein den definitzeko orduan, zalantzak sortzen dira. Hala ere, Azaro Fundazioak, Leartibai Garapen Agentziak eta Leartiker-ek badute lau urtean eskualdeko hainbat enprekin batera kontrastatu duten metodologia, negozio aktibitate berrien sorrera, hain zuzen ere, eta fruituak ematen ari da. Zenbaki honen *Behatokia* atalean azaltzen da gure metodologia, berritu nahi duten enpresei zuzendutako *Behatokia* da, eta proiektu azeleragailu zerbitzua zertan datzan argitzen da.

Gaur egun, erakunde publikoek berrikuntza bultzatu eta laguntzen dute, horretarako dauden diru laguntza eta programen bidez. Asko dira horretara zuzendutako bideak eta gure eskualde honetan zerbitzu hori ematen duten garapenerako agenteak. Aipagarri, irailean atea irekiko dituen Lea-Artibai Berrikuntza Gunea, Esperanza egiten ari garen eraikin berria, berritu nahi duen eskualdeko eragile eta enpresei zerbitzuak eskaintzeko eta elkarlanerako gunea.

Orain arteko Hazi-etan modura, berrikuntzan murgilduta gaude oraingoan ere, hainbat sektoretako enpresek nola berritzen duten azaltzen dugu. Enpresa handiak, txikiak eta eredu ezberdinetakoak dira, azken batean gure inguruko enpresak, enpresa errealak, egunez egun eta pixkanaka-pixkanaka berritzen daudenak.

Ekintzaileei eta sortu berri diren enpresei ere tarte zabala eskaintzen diegu *Enpresak sortzen* atalean. Maiatzean, Ekintzailearen eguna ospatzen da; eta horren baitan, hainbat ekitaldi antolatzen dira, sortze edo sortu berri diren enpresen eta merkatuan esperientzia zabala dutenen arteko harremanak estutu eta bakoitzaren ibilbidea besteekin konpartitzeko aukera emanez. Lehiaketak eta jardunaldiak antolatu dira hainbat kolektibori begira, hala nola, banakako ekintzaile, merkataria eta azken urteotan sortutako enpresei.

Turismoa gure eskualdeko giltzarrietako bat izanik, oso garrantzitsua da arlo horretan egiten ari den lana. Oraingo honetan, *Ikuspegia* atalean lan horren adibide bat agertzen da, turismo sektoreko enpresen lehiakortasuna eta eguneroko kudeaketa hobetzen lagundu duen Jardunbide Egokien programa –Turismoaren kalitatearen kudeaketa programaren ezarpena–. Eskualdeko 18 enpresak parte hartu dute programa honetan, eta denek jasoko dute Kalitate Turistikoarekiko Konpromisoaren diploma, ekainaren 24an.

Azkenik, eta, beti bezala, gure eskualdeko enpresa ehuna osatzen duten enpresak ezagutzen joan gaitezen, oraingo honetan Prest Hezitzaile fisikoak, Isoleika eta Altuena nezkal turismoa ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

Landu dugun Hazi hau zuen gustukoa izango delakoan, irailean bueltatuko gara berritu zuen etxe eta enpresetara. Ordura arte, uda sasoi ederra izan.

BABESLEAK



EL FONDO SOCIAL EUROPEO  
INVIERTE EN TU FUTURO



Produktu hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantzaziorako funtsen %50 EGIFek eman du (POPV 2007-2013)

## PREST

[ prest@hotmail.com - ONDARROA ]

## KIROLA BIZI, KIROLETIK BIZI



Esperientzia, kualifikazioa, gogoa eta ilusioa dira Prest enpresaren osagaiak; kirola du lan-eremu, eta eremu horri ahalik eta zuku gehien ateratzea helburu

Kirola bizi dute eta kirolek bizi nahi dute. Horrek batzen ditu Prest enpresaren sortzaile Iñaki Solabarrieta eta Orkatz Beitia. Alor horretan eskaini dezaketenaz jabetuta ekin zioten enpresa gorputzeari, eta poliki-poliki euren asmoak gauzatzaren hasita daude.

Ondarroako bi kideek kirolarekin harreman zuzena dute, jendea prestatzen ohituta daude; baita kirol gertaerak antolatzen ere. Horrela, kirolari lotutako enpresa sortzea pauso natural bat besterik ez da izan bi ondarrutarrentzat.

Eskualdean kirolari eta kirolzale asko egon arren, entrenatzaile kualifikatu falta nabarmena dago. Hori izan zen, hain zuzen ere, aurrera egitera animatu zituena.

2009. urtea geroztik, bi bazkideak maila profesionalean ari dira jendea prestatzen. Izan ere, hori da Prest enpresak eskaintzen duen zerbitzuetako bat.

**Prestatzaileen irudia**

Kirolaria eta prestatzailea talde modura ulertzen dute Prest enpresan. Prestatzailea entrenamenduak jartzeaz arduratzen den pertsona baino zerbait gehiago bezala irudikatzen dute.

Harreman estua da euren lanaren giltzarrietako bat. Entrenamenduak diseinatzeaz gain, kirolariari hurbil daudela sentiarazten diote: kirolariari entzuten diote, haren eboluzioa jarraitu eta markatutako emaitzak lortzeko norabide egokian dabilzala ziurtatu. Lan egiteko modu horrek konfiantza harremana sortzen du; zerbait lortu nahi duenarentzat ezinbesteko baldintza.

Kirolean, urte amaierako emaitzek erakusten dute egindako lanaren kalitatea. Zentzu horretan, esparrua edozein izanda ere –oposaketan prestaketa, mantentzea, lehiaketa...–, pozik egoteko moduko emaitzak lortu dituzte; bai eurak, baita prestatu dituztenek ere.

**Ekintzak antolatzen**

Prestatzaile fisikoak izateaz gain, kirol gertaerak antolatzea ere euren egitekoen barruan daukate. Herrietan urtero antolatzen diren kirol lehiaketak, lasterketak, txapelketak antolatzeko gaitasuna dute; beti ere, ikuspuntu profesional batekin. Ekimen hauen antolakuntzan parte hartu izan dute, besteak beste: Egia-Iriondo lasterketa (Ondarroa), pala txapelketa (Ondarroa) eta Kalatraba Zubi Sprint lasterketa (Ondarroa). Momentuz euren jaioterrian, Ondarroan, hasi dira lan horretan, baina edonora zabaldu ahal dira. Gauzak horrela, udalerrietako kirol egutegiak berritu, osatu edo hobetu aldera egin daitekeen guztiarekin hainbat proiektu dituzte eskuartean.

**Atletismoa erronka**

Enpresako bi bazkideek atletismoarekin lotura handia dute, eta kirol horretan planteatu dute orain arteko erronkarik handiena: Ondarroako atletismo eskola.

Herriko eta inguruertako 8-14 urte bitartekoei atletismoak batzen dituen kirol guztiak probatzeko aukera eman nahi diete. Kirola ezagutu eta kirolari gustu hartzeko bide berri bat zabaldu nahi dute gazteentzat. Aukera berri bat jarri nahi diete eskura, etorkizunean, lehiaketara bideratu edo ez, euren osasunaren alde lan egiteko aukera.

**FITXA**

- IZENA. Orkatz Beitia Gandiaga.
- ADINA. 31 urte.
- IKASKETAK. Kirol animazioko modulua eta Fisiokulturismoko estatu mailako entrenatzailea.
- KIROL ARLOAN LAN ESPERIENTZIA. Atletismoko entrenatzailea, herri kirol entrenatzailea, suhiltzaileen entrenatzailea...
- KIROLAREKIN HARREMANA. Estatu mailan goi mailako atleta, Espainiako txapeliduna 100 metroan, Euskadiko errekorren jabea...

**FITXA**

- IZENA. Iñaki Solabarrieta Odriozola.
- ADINA. 38 urte.
- IKASKETAK. Gorputz Hezkuntzan lizentziatua (IVEF/SHEE).
- KIROL ARLOAN LAN ESPERIENTZIA. Atletismoko entrenatzailea, herri kirol entrenatzailea, suhiltzaileen entrenatzailea...
- KIROLAREKIN HARREMANA. Txokor baten Euskal Herriko txapeliduna...

### Ekintzaileentzako egunak Lea-Artibain

Kultura ekintzailea gizartean barneratzea oso garrantzitsua da, batetik, sortzen diren enpresek bertoko enpresa sarea lehiakorrago izaten laguntzen dutelako; eta bestetik, etorkizuneko enpresa sarea osatzen dutelako. Hori ulertuta, eta kultura ekintzailea bultzatzeko asmoz, hainbat ekintza antolatu genituen maiatzerako.

Eskualdeko eragileek **Kenari Arrateren esperientzia** ezagutu zuten maiatzaren 5ean. Orain urtebete pasatxo Kena Errotuluak enpresa sortu zuen, Markina-Xemeinen. Bide hori jorratzen duten guztien moduan, hainbat oztopo aurkitu zituela adierazi zuen. Oztopoak gainditzeko direla eta indarra eta gogoia transmititu zizkien entzuleei.

Maiatzaren 6an, **merkataritza alorrekoen eguna** izan zen. Merkataritza arloko enpresa sortzen dabiltzanen eta bere egunean ekintzaile izan zirenen arteko harremana estutzea ahalbideratu zuen ekimena izan zen. Iñigo Bastida merkataritza alorreko erakusleihatant aditua da, eta negozioa ere badauka. Sutsu egin zuen berba, eta hastekotan diren enpresentzat pautak oso garrantzitsuak eman zituen, hasieratik lanean gogor jarduteko.

Ondoren, enpresa sortzeko bidean daudenei eta azken urtean sortu dutenei omenalditxoak egin zitzaizkien diploma banaketarekin. Negozio baten aurrean urteak daramatzatenei ere egin zitzaizkien aipamena, eta erakusleihatant lehiaketaren sariak banatu zituzten. Eskualdeko lehen sari nagusia Eva eta Adan-entzat 600 euro, eskualdeko bigarren saria Txiki Txoko dastategiarentzat 400 euro; sari bereziei dagokienez 300 euroko sari banarekin produktua merkaturatzeko egokitasun saria Txo dendarentzat eta azkenik, sormen saria Dra dendarentzat.

**Enpresetan berrikuntzak** duen garrantziaz ohartarazteko jardunaldia egin zen maiatzaren 11n. Berrikuntza zelan egokitu, horretxengainean hausnartu zuten, eta enpresen poten-



Kenari Arrate, Ekintzaile Egunean.



Enpresekin egindako world-café ekitaldia.



Ikastetxe Mahaiko world café ekitaldia.



Teknologia berrien inguruko mintegia.

tzialitatea aztertu, world-café formatuan, Jaione Ganzarain dinamizatzaile zela. Etorkizuneko kompetentziak zehaztu eta definitu zuten parte hartu zuten guztien artean.

Eskualdeko **Ikastetxe Mahaian** parte hartzen duten ikastetxeetako ikasle eta irakasleekin ekintzailetasuna eta berrikuntza sustatzen da ikasturte guztian, eta maiatzean ekintza bateratua antolatu zen lana borobiltzeko. Ikasturte honetan, lehen sektorea landu da, eta horren inguruan lana egin dute ikasleek. Maiatzaren 20an, lanik onenari saria emateaz gain, lehen sektoreko arazoei ze irtenbide eman ahal zaien eztabaidatu zuten ikasleek. Gainera, ekintzaile baten esperientzia ezagutu ahal izan zuten.

Ekintzailearen eguneko ekintzetan parte hartzerik izan ez eta gai hauetan interesa dutenek gurekin jar daitezke harremanetan euren enpresan laguntza jasotzeko.

Maiatzaren 20an **teknologia berrien inguruan** batu ziren azken urteotan sortutako hainbat eta hainbat enpresa. Aitor Jaiorekin 2.0 teknologien inguruan jardun zuten. Enpresa sortzean, hainbat atal eduki behar dira kontuan, bezeroak, lehiakideak, hornitzaileak. Eta komunikazioa. Gaur egun komunikazio arloa ez da lehen bezalakoa, azken urteotan asko aldatu da, eta urtetik urtera aldaketa handiak izaten ditu Internetarekin lotuta doan komunikazioak.

Interneten bidezko 2.0 komunikazioak abantaila handi bat du besteekiko, bezeroaren feedbacka lortzea erraza da, eta, gainera, alde objektiboa eta subjektiboa, biak jaso ditzakegu.

Berlaratutakoak lasaitu aldera, gaur egun dugun tresna berrien saturazioari buruz kontzeptuak argitu eta enpresetan izan dezaketen erabilgarritasun praktikoa azaldu zuten.

## Kalitatea: irudia edo funtsa?



Berrikuntza tailerreko irudia.

**J**ardunbide Egokiak-Turismoaren kalitatearen kudeaketa programa. Programa hau Kalitatearen Euskal Fundazioak (Euskalit) eta Eusko Jaurlaritzak balioztatu eta turismo sektoreari egokitutako kalitate arau baten ezarpenean oinarritzen da. Lau urteko lan egitaraua gainditu eta gero, ziurtagiria ematen zaie, eta urtez urte konpromisoa hartu izanaren ziurtagiria.

Kalitatea, irudia ala funtsa? Kanpotik ikusten dena edo barnean aldatu dena? Hau da, zein da programa honen helburua? Zigilu bat lortzea, marka bat sustatu? Hausnarketa sarkon bat egin ondoren, hasiera batean establezimenduen arteko desberdintasuna hor egongo da: enpresa sarreretan izango dituzten zigiluetan, baina benetako aldea euren funtsean datza. Orain hasitako prozesuak antolakuntza maila hobetu egin du, lan egiteko modua, bezeroei ematen zaien arreta,

eta, bereziki, enpresaren funtzionamendua. Eraitza hor dago, izan dituzten hobekuntzetan, nahiz eta zigilua ez egon. Eta horrela azaltzen dute esperientzia. Zigilua, funtsean, aldatu denaren irudia da, besterik ez.

Programa honen helburua bikoitza da: turismo sektorea profesionalizatzea eta jomuga kontzientzia sortzea; hau da, ondorengo ideia sortu: denok garelako helmugaren parte, zeren eta turistak helmuga osoan izandako esperientziak barneratzen ditu, eta esperientzia txarrak zein onak helmugari lotuta gelditzen dira. Denok gogoratzen dugu txarto tratatu gaituen jateketa non dagoen, ze herritan, eta seguruenik ez dugu gogoratzen jateketa izena.

Programak hobekuntza zabaldu nahi du, hau da, edozein establezimenduk bere kudeaketa hobetzea. Egitasmo hau oso garrantzitsua da, turismo sektorearentzat zein gure eskualdeko helmuga turistikorako; lehiakortasuna eta bikaintasuna dira, berrikuntzarekin batera, gaur egungo egoerari aurre egiteko dauzkagun tresnak. Horregatik landu behar dugu gure eskaintza denon partaidetzarekin.

Lea-Artibai eskualdean 18 enpresa izan dira programa honetan buru-belarri murgildu direnak. 2009eko irailetik 2010eko martxoa arte, hainbat gairi buruzko formazioa, tailerrak eta laguntza bisitak izan dituzte. Ate irekia jardunaldia izan zuten, Natxiondo Hotelean, lehenengo ziklo hau amaitzeko. Bertan, ziklo osoan ikasitakoa modu praktikoa eta



Natxiondora bisita.

amankomunean aztertu ondoren, hurrengo elkarrekin abiatu beharreko proiektuen berri eman zen, baita 2. Zikloaren nondik norakoak ere. Bisita hau oso aberasgarria izan zen, ikasitakoaz gain, helmugari buruzko ideiak, eztabaidak eta ikuspuntuak lantzeko ere bali izan zuen eta.

Programa honen erabilgarritasuna eta establezimenduen programarekiko **asegarritasuna** azpimarratu behar da, baina baita establezimenduek izandako inplikazioa eta ekimena ere. Horren ordainetan esan behar da 18 partaideetatik hamazortzik pasatu dutela lehenengo ziklo hau, hau da, %100ak gainditu dute. Beraz, ekainaren 24an antolatuko den ekitaldian Kalitate Turistikoarekiko Konpromisoaren Diploma banatuko die Turismo sailburuordeak eta Leartibai Garapen Agentziako lehendakariak enpresariei.

## Programan parte hartu dutenak:

Ondarroako Turismo Bulegoa  
 Lekeitioko Turismo Bulegoa  
 Kaitours gida turistikoa (Lekeitio)  
 Kudet gida turistikoa (Markina-Xemein)  
 Metrokua Hotela (Mendexa)  
 Oxangoiti Hotela (Lekeitio)  
 Villa itsaso Hotela (Mendexa)  
 Zubieta Hotela (Lekeitio)  
 Natxiondo Landa Hotela (Ispaster)  
 Akuiola Nekazalturismoa (Gizaburuaga)  
 Garro Nekazalturismoa (Munitibar)  
 Altuena Landetxea (Amoroto)  
 Satzu Landetxea (Markina-Xemein)  
 Zelaigane Pentsioa (Mendexa)  
 Trinkete Aterpetxea (Lekeitio)  
 Zarate Jatetxea (Lekeitio)  
 Leokadin Bodegoi (Ondarroa)  
 Tate Gozotegia (Markina-Xemein)

## KONTZEPTUA

## GAIA

Sentsibilizazioa jardunaldia	Programaren planteamendu orokorra azaldu zen
On line ikastaroa	Bezeroa. Profesionala eta jomuga turistikoa
1. Taldekako ikastaroa	Betebehar legalak eta establezimenduko langileak
Laguntza Tekniko indibidualizatua	
1. Tailerra	Garbiketa plana Mantenimendu plana Matxuren erregistroa
Online ikastaroa	Bezeroaren asegarritasuna
2. Taldekako ikastaroa	Hornitzailea Antolakuntza Asegarritasuna Merkaturatzea Ingurugiroa
Laguntza Tekniko indibidualizatua	
2. Tailerra	Elikagaiak maneiatzeko txartela
3. Taldekako ikastaroa	Berrikuntza eta Irisgarritasuna
3. Tailerra	Asegarritasun inkestaren diseinua Kexa baten kudeaketa
Laguntza Tekniko indibidualizatua	
Ebaluazioa	
Ate irekien jardunaldia	

Programa honetan, parte-hartzeaz gain, euren beharrianak ere azaldu dituzte, parte-hartzaile guztien artean bakoitzak berea azalduz eta elkarrekin konpartituz. Horren adibideetariko bat izan da maiatzean izandako **Irisgarritasun programa**. Egitarau honen bidez, aniztasun funtzionala kontuan izanik, Irisgarritasun Turistikoaren Eredu bat sortu da. Bertan, ahalmen bakoitzari guztiz egokitzeko establezimendu turistikoei bete beharreko irizpideak zehazten dira. Gaur egun, beraz, 18 establezimenduk dute irisgarritasun programako diagnostikoa egin da.

Aurretik esan bezala, Jardunbide Egokiak programa hau lau urtetako lan egitaraua da. Beraz, behin ebaluazioa gaindituta, 18 establezimenduk prest daude 2. Ziklora pasatzeko eta bertara egokitutako formazioa jasotzeko. 2. Ziklo hau berezia izango da, SICTED estatu mailako programarekin bat egingo duelako. Hemendik aurrera, programak estatu mailako errekonozimendua edukiko du. Lea Artibaiko eskaintza web orrian ahal izango dugu kontsultatu, eta kalitate arloan gara-

tutako lanak estatu mailako difusioa izango du: [www.calidaddestino.es](http://www.calidaddestino.es)

Programa hau eta martxan ipiniko diren kasuko programak Leartibai Garapen Agentziako ekintza lerro nagusien artean daude, uneoro eskualdeko enpresa ehuna profesionalizatzeko eta uneoro izan behar duten egokitzapen gaitasunean lagunduz. Enpresa txikiak dira esfortzu handiena egiten dutenak euren zerbitzua bermatzeko eta kalitatea lantzeko, eta Garapen Agentziak kontuan hartu nahi ditu euren beharrianak. Azken emaitza zera da: zigiluan agertzen den irribarra bezeroen aurpegian ere ikustea, eta Lea-Artibai eskualdea oroitzeko orduan, irribarre hori berriz azaleratzea euren aurpegian.



**ISOLEIKA**www.eika.com/soleika **[INDUSTRIA - ETXEBARRIA]**

Iñigo Garai zuzendari orokorra, Goiuri Gorostiza produktu eta prozesu teknikaria eta Daniel de los Toyos I+Gko zuzendaria.

## Isoleika: Eikaren ezagutza merkatu berriei zabaltzen

Panel isolatzaileak hainbat sektoretan egokitu ahal dira

Eikaren teknologia merkatu berrietara zabalduko da Isoleikaren bidez. Panel isolatzaileak fabrikatuko ditu, eta hainbat aplikaziorako izango dira baliogarri. Produktu bera eskaintzen dutenen aldean diferentzia markatuko dutela ziurtatzen dute sustatzaileek.

Grupo Mondragon-en barruan egongo da Isoleika, Osagaien Zatiketa atalaren barruan, Eika moduan. Eikak sustatuta jaiotako kooperatiba izango da, Eikatik banandua, nahiz eta fisikoki Eikako azpiegitura erabili. Hori bai, Eikak urteetan garatutako teknologia du oinarri.

Panel isolatzaileak eskaintzen ditu Isoleikak. Hainbat sektoretan egokitu ahal da: Etxetresna elektrikoak, eraikuntzak, tenperatura kontrolatutako enbalajea, garraioa, industriako hoditerietarako instalazioak eta industria labeak. Eta isolatu nahi den hori isolatzeko gai direla ziurtatzen dute. «Aplikazio bakoitzerako soluzio termiko hobere-na bermatzen duten produktuak ditugu». Horrek leiho ugari zabaltzen dizkie.

Isoleikaren produktuek silikato ez-organikoak dituzte, bereziki silize pirogenikoak eta izpi infragorriak gutxitzeko okupatzaileak. Horraino, azalpen teknikoa. Funtsean zera da Isoleikaren produktuen bidez lortzen dutena, tenperaturaren transferentzia oso baxua izatea. «Ez da gauza berria. Isolatzen dutenak egon badaude, baina aparteko eskaintza da gurea. Isolamendu maila hobea da merkatuan daudenekin konparatuta. Izan ere, merkatuko konparatiba pare bat egin dira, Espainian eta Ingalaterran, eta isolamendu altuagoko panelak lortu

ditu Isoleikak». Merkatuak hainbat aukera dauzka isolamendurako, besteak beste, egurra eta haitzezko errota. VIP panelek maila bera lortzen dute. Askoz meheagoa den materiala erabilia, ordea.

Eika-k oso ondo ezagutzen du bitroetako isolatzailea, mundu mailan gorengo daude. Ezagutza horrek hainbat aktibitate gartzera eraman ditu, eta horri esker jaio da Isoleika bera. Egun batetik bestera ez, ostera, lau urteko ikerketa baitago guztiaren atzean. Beraz, proiektu berri bati ekiteak dakarren arrisku puntua hor egon arren, oinarri sendoak dituzte. Eta eskariak ere bai. Izan ere, irailetik ari dira merkatuari erantzuten, eta lotuta dituzten kontratuak ere ez dira gutxi. Produktu berritzaileetan parte hartuko dute, gainera. Hartara, Fagorrek uda aurretik aterako dituen hozkailuak, A plus plus gamakoak, Isoleikaren isolatzailearekin eginak dira.

Gaur egun, zazpi lagun daude Isoleikan lanean, eta 2014 urtera begira, 50 pertsona egongo direla aurreikusten dute. Eikako lan taldeko langileekin osatuko dute lan taldea. Estatu mailan hasiko dira lanean. Dena dela, Eikaren bokazioa berea egiten du Isoleikak. Hura modura, esportatzaile ere izan nahi du. Epa laburrera, baina, beste batzuk dira irizpideak. Aktibitatea eragitea eta merkatuan enpresarentzat tokia egotea dira epe laburrera begirako helburuak; emaitzak hortik ikusi nahi dituzte.

### INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUA

Ingurumena errespetatzen duen isolamendua da, Isoleikak nabarmentzen duenez.

- Isolamendurako eskaintzen duen material mikroporotsua erabat segurua da ingurumenaren eta osasunaren ikuspuntutik.
- Garbia eta segurua da ingurumenarekiko, eta ez du arnasten den partikularik botatzen; Isoleikak materiala berez segurua eta garbia dela bermatzen du.
- Oxido mineralen eta metalikoen hauts xehez eginda dago;
- Isolatzaile mikroporotsuak dira tenperatura handitan isolatzeko modurik onena.
- Efizientzia hobetzeko isolamendua da, energiaren kontsumoa murrizteko isolamendua.



## Bizimodu desiraturantz pausoak emanez

Bizi aldaketa erro-errotik eta bilatzen ari zirenaekin aurrez aurre topo egitea; hori da bere jabeentzat garai batean baserri eta gaur egun nekazal etxe den Altuena.



Eva Fernandez eta Pedro Tapia

Aitona-amonen baserrira bueltatzea bizitza berri bat eta bizimodua aurrera ateratzeko modu berria dira Pedro Tapia (Bilbao, 1965) eta haren emazte Eva Fernandez (Bilbao, 1960). Orain arte ezagutu izandakotik asko urruntzen den inguruan eta lanean murgildu dira. Guztia zaie arrotz, guztia berri, baina aldi berean, guztiz beteta sentitzen dira.

Turismo sektoreko langile bihurtuta, itsuki sinesten dute Lea-Artibaik eskaintzeko dituen aukeretan. Haien iritziz, inguru paregabea da, baina, oraindik ere, gehiengoarentzat ia ezezaguna da. Ezezagun izate hori, lehen begiratuan, desabantaila dela pentsa daitekeen arren, Altuenakoek bestelako irudi bat ateratzeko gai dira; inguruarekin eskutik doan turismo mota bat indartzeko aukera zabaltzen duen atearen irudia. Turismo jasangarria, erabakitako erritmo baten eboluzionatzen eta hasten doana da eurek bultzatu nahi dutena, eta hori lortu aldera ari dira lanean.

### Kalitate turistikoari buruzko ikastaroa

Altuenak hartutako norabidea Leartibai Garapen Agentziak antolatutako kalitate turistikoari buruzko ikastaroaren helburuekin bat dator bete-betean. Hori dela eta, ez zuten dudarik izan izena emateko orduan.




Ikastaroak gestioan hobetzeko bidea eman die, eta modu estrukturatu baten funtzionatzeko tresnak eskuratu dizkie. Horrekin guztiarekin, landa etxearen funtzionamendua optimizatu dute, eta ordura arte egiten ari zirena eraginkorrago egiten lagundu.

Baina horren guztiaren gaineratik, ikastaroak turismo sektorean ari diren eskualdeko pertsonak ezagutu eta haiekin esperientziak trukatzeko aukera eman die. Eta esperientziak partekatze hori baliagarri zaie euren jardunean etengabe hobetzen joan ahal izateko.

### Esentzia propioa duen etxea

Altuena turismo sektoreak eskaintzen dien oportunitatez jabetuta dago. Baina bizimodu berri honi ekitea erabaki zutenean, Altuena negozio soil bat baino gehiago zela argi zeukaten; bizia ulertzeko eta bizitzeko era bat zen.

Altuena urte askotan inguruan erroturiko eraikin bat izan da, eta orain funtzioa aldatu duen arren, esentziak bera izaten jarraitzen du. Lasaitasunak biltzen du giroa, eta inguru atsegina da nagusi Altuenan. Bisitatzea merezi duen eremu baten kokatua, denetik urrun eta, aldi berean, guztiarengandik hurbil dago: mendia, itsasoa, hiria...



2006an atea ireki zutenetik 500 pertsonatik gora pasa dira, eta haietako bakoitzak hitz atsegin eta esker onekoz bete du sarre nagusian dagoen liburua.

Etxea birgaitzeko erabilitako material nobleak –egurra eta harria, nagusiki– giro goxoa sortarazten dute, eta Altuenan daukaten egiteko moduak goxotasuna areagotu besterik ez du egiten. Etxeko txoko bakoitzean, behar duten hori topatzen dute bisitariek; intimitatea, lasaitasuna, lagunartea... Eta, gainera, jabeak beti daude hurbil, edozer behar izanez gero ere. Modu horretan, bisitariek arrotz izateari uzten diote, eta familia handiko kide balira bezala sentitzen dira; Altuenako familiako kide.

# Berrikuntza gunea: proiektu berriak identifikatzeko garaia iritsi da

Lea-Artibai eskualde mailako garapen erakundeak 2007. urte-tik elkarlanean dabiltza eskualdeko berrikuntza gunea abian jartzen (Esperanza 2013 proiektua). Azaro Fundazioa, ekintzailetasun eta berrikuntza arloan; Leartibai Garapen Agentzia, tokian tokiko proiektuen garapenean; eta Leartiker, Lea Artibai Ikastetxeko ikerketa arloan.

Lehen faseko helburuak bete ondoren, bai enpresen lehiakortasun mailarekin erlazionatutako helburuak, bai proiektu arkitektonikoarenak (eraikuntza berria irailerako prest egongo da), bigarren faseari ekiteko ordua da.

2010tik 2013ra artekoa da bigarren fase hau. Berrikuntza gunearen kontsolidazioaren garaia izango da, berrikuntza proiektuak identifikatu, aztertu, garatu eta aktibitate berrien sorrera bultzatzeko garaia, beti ere agenteen elkarlana – garapen erakundeak, ikerketa zentroak, enpresak– oinarrian izanik.

Honela ba, ondorengo da Berrikuntza gune honen bisioa 2010-2013 epealdirako: «Eskualdeko enpresa sarea handitu eta lehiakorrago bihurtuko duen proiektu azele-ratzaile bilakatu; enpresei beraien berrikuntza proiektuetan laguntzeko erreferente izan, eskaintzen diren zerbitzuen osotasun, kalitate eta enpresen helburuekiko lan taldearen inplikazio mailagatik».

## 2010 - 2013 aldiko erronka

Bisio hori lortzeko bidean lau erronka definitu dira, eta bakoitzak bere garapena du:

1. **ERRONKA:** Berrikuntza dinamiketan lanean dabiltzan enpresen kopurua gehitu:



enpresen lehiakortasun maila hobetzeko helburuarekin, berrikuntza dinamiken hedapena eta sentsibilizazioa eragin enpresetan eta proiektuak garatzerako orduan enpresen arteko elkarlana bultzatu.

Berrikuntza proiektuak enpresen eguneroko dinamikan barneratzeke helburuarekin, balio katearen ondorengo arloetan lan egiten da:

- Behatokia, negozio ideia berritzaileen identifikaziorako tresna aktiboa. Turismoa, osasuna, akuikultura, elikagaiak, material polimerikoak, energia berriztagarriak, ingurumena eta ekintzailetasuna dira gaur egun sektore estrategikoak, eta sektore hauek dira, beste batzuen gainera, Behatokiaren bilaketa eremu, nahiz eta enpresen beharrezan konkretuei erantzunez beste sektore ba-tzuetan behatoki lanak egiten diren.
- Proiektu azeleratzailea, aurrez identifikatutako ideiak modu azkar eta eraginkor ba-

ten baloratu eta aztertzeko tresna. Ideiaren kontraste arin bat. Bideragarritasun planaren edo proiektuaren beharren arabera azterketak egiteko baliabideak dituen arloa da, bai erabiltzen den metodologiagatik bai duen lan talde zabalagatik.

- Garapen teknologikoa. Material polimeriko eta elikagaiak arloan, enpresen lehiakortasuna hobetzera zuzendutako ikerketa eta garapen teknologikoko proiektuak lantzen dira.

- Berrikuntza proiektuak. Berrikuntzaren garrantzia estrategikoaz enpresak sentsibilizatzea, berrikuntzarekin erlazionatutako inizatibak, praktika onak hedatzea eta berrikuntzaren kudeaketarako sistemak ezartzea dira arlo honen helburu.

Lan hau hasi da fruituak ematen. Horren erakusgarri da Isoleika Koop.E, berrikun-



tza proiektuen dinamika barneratuta duen enpresa batetik sortutako kooperatiba berria.

2. **ERRONKA:** Lea-Artibaiko Ekintzailetasun eta Berrikuntza gunea – eraikina– enpresa sarearen lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak aktibatuta eta azeleratzeko gune erreferente bilakatu, eskaintzen diren zerbitzuengatik eta dituen azpiegiturengatik.

2008an martxan jarri zen elikagai arloko gune teknologiko berria. Hantxe daude mikrobiologia, biokimika eta bioteknologia laborategiak.

2010eko azken hiru hilabeterako prest egongo den LEA-ARTIBAI BERRIKUNTZA GUNEA da eraikuntza nagusia. Enpresa haztegia, prototipoen tailerra, laborategiak, sala garbia, behatokia eta proiektu azeleragailuen gunea hantxe egongo dira, enpresei beraien berrikuntza prozesuak martxan jartzeko beharrezkoak dituzten zerbitzu eta azpiegiturak eskaintzeko.

3. **ERRONKA:** Ekintzaileei (banakakoak edo korporatiboak) zerbitzu integrala es-

kaini, negozio ideia berritzaile baten identifikazio eta balidaziotik hasiz – zaintza propektibo eta estrategikoa egiten duen behatokiaren lanean oinarrituz– proiektuaren garapena eta enpresaren sorrerarekin jarraituz –proiektu azeleratzailearen baliabideak aprobetxatuz– eta kontsolidazio fasean babesa eskainiz, hau da, finkatze faseko zerbitzuak.

Nahiz eta azken urteetan zerbitzu hauek eskaini ekintzaileei, epealdi berri honetan batez ere ondorengo lan arloak izango dira giltzarri:

- Enpresa haztegiaren zerbitzuak
- Ekintzaileen sareko zerbitzuak, sortu berri diren enpresak kolaboraziorako eta berrikuntzarako duten elkargunea dinamizatu.
- Behatoki zerbitzu indartsua, enpresekin batera negozio ideien bilaketa eremuetan ditugun ezagupenak sakondu eta bilaketarako eremu berriak ireki.

Zerbitzu integral hau jaso duen enpresetako bat Kalotek Renovables S.L da, energia berriztagarriak sektorean lanean dabilen enpresa, eta Construlan 2010eko V. Eraikuntza eta Berrikuntza lehiaketako instala-

ziorako produktuen accesita irabazi duena, berak garatutako kalointegral produktuegatik.

4. **ERRONKA:** Osasuna, turismoa eta akuikultura arloetan jarraitu beharreko estrategiak zehaztu, eskualdeko enpresen dibertsifikazio eta berrikuntzarako ideia iturri diren arloetan lanean jarraituz.

Aipagarria joan den apirilaren 30ean akuikulturaren inguruan antolatutako jardunaldia, non erakunde publiko, zentro teknologiko eta akuikultura sektoreko enpresen arteko elkarlana bultzatzea izan zen helburu.

Orain arte bezala, Lea-Artiba eskualdeko garapen erakundeak prest daude epealdi berri honetan ekintzaileei babesa eskaintzeko, lehiakortasun maila hobetu dezaten zerbitzuak eta azpiegiturak eskainiz. Zerbitzu eskaintza hau beti ere posible da eskualdeko garapen erakunde eta erakunde publikoen lankidetzari esker, ekintzailetasuna eta berrikuntza proiektuak aurrera eramateko dauden programa edo diru laguntzen baita.

# LEIHATILA

## DIRU LAGUNTZAK ▶

### MIKROENPRESA DIGITALA

Xedea: ordenagailuak erostea, Internetera alta ematea eta hasierako 6 hilabetetako kuotak eta birus-kontrako softwarea diruz laguntzen ditu. 9 langiletik beherako enpresentzat.

Epea: 2010/12/31

### HOBEKI DIGITALA

Xedea: enpresetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiliz digitalizazioa bultzatzea.

Epea: 2010/10/15

### BIDERATU

Xedea: 50 langile baino gehiago duten enpresetan finantza berregituraketa egiteko laguntza kanpoko esku-hartzea beharrezkoa bada, epe labur edo ertainean desagertu ez daitezten.

Epea: 2010/07/31

### RESISTE

Xedea: finantza zorrak negoziatzeko homologatutako goi mailako finantza aholkulariak kontratatzeko laguntzak.

Epea: 2010/12/31

### MEP

Xedea: Industri makina berrietan egin beharreko inbertsioak sustatzea ekipamendu produktiboetan modernizazio maila altua lortzeko; eta ekipamendu horiek laneko segurtasun eta osasun arauak egokitzeko laguntzak.

Epea: 2010/10/15

### ALDATU

Xedea: berrikuntza bikaineko proiektuak sustatzeko laguntzak

Epea: 2010/12/30

### «CONNECT» PROGRAMA

Xedea: industriako edo berari lotutako zerbitzuetako enpresa gazte berritzaile eta hazkunde-gaitasun handia dutenek abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsioetarako.

Epea: 2013/12/31

### «MINI CONNECT» PROGRAMA

Xedea: hazkunde-gaitasun handiko enpresa gazte berritzaileek proiektua abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsioetarako.

Epea: 2013/12/31

### ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ARLOKO PROIEKTU BERRIEI LAGUNTZA

Xedea: energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioei egotz dakiekeen ibilgetu materialean egindako inbertsioa, instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoa dena eta berriztagarriak ez diren beste teknologia batzuk erabiliz justifikatu ezin dena

Epea: 2010/11/30

### LEHIA ETA BERRIKUNTZA IBILBI-DEAK

Xedea: Lehia eta berrikuntza ibilbi-dea definitzea, berrikustea eta garatzea.

Epea: 2010/12/31

### PRAKTIKETAKO KONTRATAZIOA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK

Xedea: 12 hilabeteko praktiketako kontratuak diruz lagunduko dira.

Epea: 2011/02/28

### PATENTEAK

Xedea: Europako (EPO) edo nazioarteko (PCT bidez) patente-eskabideak aurkezteari eta izapidetzari lotuta dauden jarduerak.

Epea: 2010/12/30

### ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK

Xedea: Enpresa berria eratzeko, bultzatzeko, lokala alokatzeko, jabetza intelektual eta industrialerako, doktore edo teknologo bat kontratatzeko laguntzak.

Epea: 2010/09/15

## Esperanza 2013 proiektua

Irailaren 1etik aurrera, LEA-ARTIBAI BERRIKUNTZA GUNEAn egongo gara kokatuta Leartibai Garapen Agentzia, Leartiker eta Azaro Fundazioko lankideok. Gure eraikin eta lanleku berria ikusteko gonbidapena ere jasoko duzue, antolatuko ditugun ate irekietara hurbildu zaitezten, guztiok baitugu zeresana eskualdearen garapenean.



## Informazio gehiagorako DEITU:

94 6169172  
94 6169088